

ALKATETZAREN DEKRETUA

SANTURTZIKO UDALERRIAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA- BERDINTASUNA SUSTATZEKO 2026ko EKITALDIRAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA

Alkateak 2025eko ekainaren 11n emandako dekretuaren bitartez (1656 zk.) onetsi zen Santurtziko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) 2025-2027 aldirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 2003/38 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezarritakoa betez. Plan horren 9. artikuluan, jarduteko beste ildo estrategiko batzuen artean, honakoa hartzen da aintzat: *"Emakumeen ahalduntzea eta partehartze soziala sustatzeko programak Santurtziko Udalean"*. Horrelakoak diruz laguntzeko 10.000,00 euroko aurrekontua aurreikusi da urtean 2025., 2026. eta 2027. urteetako ekitaldietarako.

Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 25.2o) artikulua udalerrii eskumenak ematen dizkio: *"Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketetan, bai eta genero-indarkeriaren aurka ere"*.

Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2016/2 Legearen 17.1. artikulua honakoa ezartzen du udalerrien eskumen gisa *"27) Genero-berdintasunen politikak ordenatzea eta kudeatzea, eta ekitatea sustatzea"*.

Santurtziko Udalak, Gizarte Ekintza Arloaren eta Berdintasun Zerbitzuaren bitartez xede du, besteak beste, ahalik eta jarduketa eta proiektu gehien egikaritzea integrazioa eta partehartze soziala sustatzeko. Horrez gain, helburu garbia dira udalerriko herritarren ahalduntzea eta ongizatea eta, bereziki, emakumeen partehartze soziala sendotzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.

Halaber, helburu hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio-zorroa eta zerbitzuei buruzko urriaren 6ko 2015/185 Dekretuaren 33. atalaren eta horren I. eranskinaren 1.5. fitxaren esparruan ezartzen da, partehartzea eta gizarte-inklusioko sustatzeko zerbitzuaren arloan.

Legegintzako martxoaren 16ko 2023/1 Dekretuaren 7.1.k) artikulua, zeinak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onesten duen (2023ko martxoaren 27ko EHAOa, 60 zk.), ezartzen du Euskadiko toki-administrazioaren funtzioa izango dela *"Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta*

partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo eginkizunek tokian-tokian emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute."

Bestalde, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Santurtziko VI. Plangintza (2022-2027), Udaltzako onetsia 2022ko otsailean, badu bere lan-ar datzen artean ahalduzte feministari buruzko atal bat.

Ahalduzte hori lortzeko hainbat ekintza zerrendatu dira, 6.2.a kasu, non jasotzen den Santurtziko elkarteei lagunduko zaiela berdintasunaren aldeko jarduerak egiten eta genero-ikuspegia txertatzen euren erakundeetan.

Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoa betez, argitaratua bera Bizkaiko 2025eko azaroaren 6ko Aldizkari Ofizialean (213 zk.), oinarri espezifikoa diseinatu dira dirulaguntzak emateko emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan, publizitate, gardentasun, objektibotasun, berdintasun eta bazterketa eza printzipioei jarraituz.

Udaleko kontu-hartzaileak dirulaguntzen deialdi honek dakarren gastuaren aldeko txostena eman du, espedienteari erantsia bera.

ARRAZOIBIDE JURIDIKOAK

Santurtziko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 20.1. artikuluan ezarritako eskumena erabiliz, zeinak adierazten duen "*Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da alkateak edo honek eskuordetzen duen zinegotziak onetsitako deialdi publikoaren bitartez*",

XEDATZEN DUT

BAT. – Onestea Santurtziko Udalean emakume eta gizonen artean aukera-berdintasuna sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak 2026. urteko ekitaldirako, I. ERANSKINEan idatzitakoaren arabera.

BI. – Oinarriak argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Santurtziko Udaleko webgunearen iragarki-taulan.

HIRU – Ebazpenaren berri ematea Ekonomia eta Ogasun Arloan eta informazioa helaraztea Dirulaguntzei buruzko Datu Base Nazionalera.

Alkate-udalburuak agindu eta sinatu du, Santurtziko Kontzejuko Udaleko udaletxean, marjinan adierazitako egunean, eta idazkari nagusiaren adostasunarekin sinatu da (*).

Ontzat emanez
GIZARTE EKINTZA ETA BERDINTASUNeko
ZUZENDARIA
Susana Martín

ALKATE UDALBURUA
Itziar Carrocera Fernández

(*) Honako dekretu hau Udal idazkaritzan dagoen Alkatetzako Dekretu eta Ebazpenen Liburuan jasoko da , orriaren ertzeko zenbakia eta data dituela, beronen benetakotasunaren eta osotasunaren berme gisa.

I. ERANSKINA

ONESTEA EMAKUME ETA GIZONEN ARTEAN, SANTURTZIKO UDALEAN, AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK 2026. URTEKO EKITALDIRAKO

1. artikulua- XEDEA

Honako oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea dute xede Santurtziko Udalean, eta horrez gain, aukera-berdintasunaren eta indarkeria matxistak desagerraraztearen inguruan kontzientziaraztea. Dirulaguntzak lehiaketa bidez banatuko dira.

2. artikulua – ERAKUNDE ONURADUNAK

1. Santurtzin egoitza soziala duten emakumeen elkarteak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan daitezke dirulaguntza horien onuradun, baldin eta horien helburuen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta/edo indarkeria matxistak desagerraraztea hartzen badira aintzat, jarduera horiek aurreko artikuluan ezarritako helburuarekin bat badatoz eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Santurtziko udalerrian eta/edo santurtziarrentzat diruz lagundu beharreko programak edo jarduerak garatzea.
- b) Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egotea, hala badagokio.
- c) Emakumeen elkarten eta kolektibo feministen kasuan (azken hauen kasuan, halakorik balute) elkarte eskatzailearen estatutuek elkarte horretako kide izateko baldintza gisa emakume izatea eskatzea.
- d) Irabazi asmorik gabeko erakundeen kasuan, estatutuetan berdintasunaren aldeko lana jasotzea helburuen artean, edo, hala badagokio, berdintasun-plan bat indarrean izatea.
- e) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektuak aurkeztea, Santurtziko udalean indarrean dagoen Berdintasun Planaren ildo estrategikoarekin bat etorritz.
- g) Ez egotea antzeko dirulaguntzen edo bestelako lagintzen esparruan hasitako inolako itzulketa- edo zehapen-prozeduran sartuta.
- h) Aldez aurretik Santurtziko Udalak emandako dirulaguntzen justifikazioa egunean izatea.
- i) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

- j) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako otsailaren 18ko 2005/4 Legea betez (otsailaren 16ko 2012/3 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 2022/1 Legeak aldatua), genero-ikuspegia txertatzea, eta berdintasuna sustatzea fase guztietan: plangintza, betearazpena eta ebaluazioa.

2. Pertsona fisikoen taldeak ere erakunde onuradun izan daitezke, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, elkarteen udal-erregistroan izena emanda egon ez eta IFKrik ez izan, baldin eta deialdiaren xedean jasotako proiektuak eta/edo jarduerak gauzatu ahal badituzte. Horretarako, artikulua honetan aurreikusitako gainerako baldintzak eta 2003/38 Legearen 11.3. artikuluan ezarritakoa bete beharko dituzte, eta ez dute IFZrik, estatuturik eta Elkarteen Udal Erregistroan izena eman behar izango.

3. Ikerketa-proiektuen kasuan, egoitza soziala Santurtzin duten pertsona fisiko edo juridikoek aurkez ditzakete ikerketok. Pertsona fisiko batek aurkeztzen baldin badu, ez du IFKri eta estatutuei buruzko dokumentaziorik aurkeztu beharko, eta ez da zertan egon Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda.

3. artikulua – DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO PROIEKTU ETA GASTUAK

1.- Santurtziko Udalak proiektu edo/eta jarduerak diruz lagundu ditzan, proiektuok honako helburu hauek bete beharko dituzte:

- a) Emakume eta gizonen arteko parekidetasun ezari buruzko informazioa eman edo horrekiko sentsibilizazioa landu beharko dute, edo/eta rol eta genero-estereotipoen analisiari eta aldaketari buruzkoak izango dira.
- b) Ahalduz feminista edo/eta udalerriko LGTBI kideen eskubideen aldeko eraldaketa soziala sustatuko duten eta Santurtziko emakumeen historia berreskuratzeko eta pentsamendu feminista lantzeko ikerketak egingo dituzte.
- c) Emakumeen ahalduz pertsonal, kolektibo, sozial edo/eta politikoa sustatuko dute ikuspegi intersektorialetik.
- d) Indarkeria matxistak prebenitu eta horiekiko sentsibilizazioa landuko dute. Ekonomiaren eta gaur egungo antolakuntza sozialaren ereduaren eraldaketa eta bizitzaren jasangarritasunerako alternatibak sustatzea.
- e) Emakumeak ikusgai jarriko dituzte zenbait arlotan eta euren partehartzea baloratuko dute.
- f) Genero-estereotipo eta rola gainditzea sustatuko dute.

2. Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagunduko:

—Aisialdirako jarduerak baino jasotzen ez dituztenak.

—Genero-ikuspegia txertatzen ez dutenak.

3. Diruz laguntzeko modukotzat hartuko dira, ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriak zalantzarik gabe betetzen dituztenak eta ezinbestekoak direnak. Egindako gastutzat joko da zuriaketaren epea amaitu aurretik burutu egin direnak. Zehatz-mehatz diruz laguntzeko modukoak izango dira honako hauek:
 - a) Programatutako jarduerak gauzatzeko behar diren materialen gastuak.
 - b) Langileak edo erakundeak kontratatzekeo gastuak, baldin eta pertsona edo erakunde horiek dirulaguntzaren xede den proiektua garatzeko baino ez badira.
 - c) Elkarleen funtzionamendu- eta mantentze-gastuak, hala nola ura, elektrizitatea, telefonia, alokairuak, material informatikoa, altzariak edo antzekoak erostea Santurtziko udalerrian dauden egoitzetarako. Ezin izango da kontzeptu horretara bideratu emandako dirulaguntzaren ehuneko hogeita bost baino gehiago (% 25).
4. Ez dira, inola ere, diruz lagunduko:
 - a) Bankuko kontuen harira zor diren interesak.
 - b) Prozedura judizialeetatik eratorritako gastuak.
 - c) Interes, errekaru eta zehapen administratibo eta penalak.

4. artikulua- ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA, MODUA ETA EPEA

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Dirulaguntza jaso nahi duten erakundeek eskabidea Santurtziko Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dute.

Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak baino ez dira onartuko.

Erakundeek eskabide bana baino ezin izango dute aurkeztu, eta, bat baino gehiago aurkeztu balute, lehenengo aurkeztu dena hartuko litzateke aintzat, horixe baloratuz.

5. artikulua- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa izango da erakunde interesdunak deialdian ezarritako eredu ofizialarekin bat datorren eskabidea aurkezte. Eta horrekin batera honako dokumentazio hau ere bai:

- Erakunde juridiko eskatzailearen IFZren kopia.
- Erakundearen estatutuen kopia, salbu eta aurreko deialdietan aurkeztu badute eta horietan inolako aldaketarik egon ez bada. Talde eta/edo kolektibo feministei ere ez zaie eskatuko.
- Programa edo proiektua zehatz azalduta (deialdian dagoen ereduaren arabera) honako hauek zehaztuz:
 - Helburuak eta horiek lortzeko aurreikusitako jarduerak deskribatzea.
 - Programaren hartzaileak eta onuradunen kopurua.
 - Proiektuaren gutxi gorabeherako iraupena: hartzaileei arreta ematen zaien urteko ordu-kopurua.
 - Erakunde eskatzaileak jarduera edo programa gauzatzeko dituen giza baliabideak eta azpiegiturak. Hala badagokio, genero-berdintasunari buruzko prestakuntza duten giza baliabideak.
 - Dirulaguntza gisa eskatzen den zenbatekoa eta programaren aurrekontu osoa, eta, hala badagokio, beste finantzaketa-iturri batzuk.
 - Jarduera ebaluatzeko sistemaren deskribapena.
 - Jardueraren hedapenean euskararekiko izango den jarrera.
- Diruz lagundu daitekeen proiektuaren aurrekontuaren erantzukizunpeko adierazpena, proiektua gauzatzeko aurreikusitako gastu eta diru-sarrerak barne. Horietan zehaztu beharko da dirulaguntzarik eskatu zaien beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskabidearen xede diren jarduerak gauzatzeko, jaso egin diren eta zein izan den dirulaguntza horien zenbatekoa.
- Erakundearen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, honako hau adierazten duena: erakundeak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioagatik eragindakoak barne.
 - Hirugarrenen fitxa behar bezala beteta.
 - Erakunde eskatzaileak ordenantza honetan aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatzeko kontuan hartzeko moduko agiriak.

Eskabidea aurkezteak honako ordenantza honetan definitzen diren baldintzak berariaz eta modu formalean onartzea dakar.

6. artikulua- OSORIK BETE GABEKO ESKABIDEAK EDO AKASTUNAK

Eskabideak ez baditu 5. artikuluan adierazitakoak betetzen eta berarekin batera ez bada aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkezten, erakundeari errekerimendua egingo zaio hamar lanegunen bururako akatsa zuzendu edo falta diren agiriak aurkeztu ditzan. Halakorik egin ezean, ez zaio eskakizuna onartuko.

Halaber, Udalak aukera izango du erakunde eskatzaileari egokitzen jotzen duen dokumentazioa eta informazioa eskatzeko, aurkeztutako eskabidea behar bezala ebaluatu eta horren inguruko ebazpena eman dezan.

7. artikulua- IZAPIDETZA ETA EBAZPENA

1.- Horrelako dirulaguntzen onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, eskabideak ebatzi egingo dira. Izapide horren aurretik, txosten teknikoa egingo da, alkateak edo eskumen hori eskuordetuta duen organoak emandako ebazpen baten bitartez.

Ebazpen horretan dirulaguntza eman zaien eskatzaileen zerrenda jasoko da, zenbatekoa eta erakunde onuradunen betebeharrak adierazita. Horrez gain, hala badagokio, gainerako eskabideen ezespena ere jasoko da.

Eskabidea ezetsi egingo da erakunde eskatzaileak ez baditu Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketa-izapide guztiak egunean.

Era berean, eskatutako dirulaguntza ezetsi egingo da aurrekontuetan dagokion esleipenaren kreditua agortuta baldin badago.

2.- Eskabideak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei (6) hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Dirulaguntzen eskabideak ezetsitzat joko dira, baldin eta egun horretarako ez badago berariazko ebazpena emanda. Hori guztiori administrazioak horiek beren-beregi ebazteko betebeharrari ezertan eragotzi gabe.

3.- Ebazpena 10 eguneko epean jakinaraziko da bera ematen den egunetik zenbatzen hasita, administrazio-prozedura erkidearen arautegiak dioenari jarraituz. Eta bertan legez dagozkion baliabideak zein diren adieraziko dira.

4. Dirulaguntzak eman emango dira erabilgarri dagoen kreditua agortu arte, betiere eskabideetan lortutako puntuazioari erreparatuta. Eta berdinketarik bada, eskabidea sarrera erregistro nagusian aurkeztu ziren egun eta orduaren arabera hurrenkerari jarraituz ebatziko da.

5. Dirulaguntzak ez dira emango baldin eta erakundeak edo proiektuak ez baditu honako oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen, izan ere, ez dira proiektuak baloratuko.

6. Erakunde onuradunek emandako dirulaguntzak onartuko egin dituztela ulertuko da, baldin eta erabakia jakinarazi eta hamar egunen buruan ez badiote beren-beregi Santurtziko Udalari jakinarazten uko egiten diotela dirulaguntza jasotzeari.

7. Dirulaguntzaren kontzeptupean emandako zenbatzekoa eskatutako zenbatekoaren % 100etik beherakoa izan daiteke. Edonola ere, elkarte edo/eta erakunde onuradun batek ere ezin izango du urteko deialdiaren aurrekontu osoaren % 30 baino gehiago jaso.

8. artikulua- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Honako ordenantza honetan araututako dirulaguntzak emateko honako taula honetan adierazitako puntuazio-irizpide eta mugak ezarriko dira:

Irizpidea	Puntuazioa (gehienez 100 puntu)
a) Proposamenaren kalitate teknikoa: helburuek eta jarduerak berdintasunaren sustapenean eta indarkeria matxisten prebentzioan duten eragina.	
a.1) Helburuak	Gehienez 10 puntu
a.2) Egingo diren jarduerak	Gehienez 10 puntu
a.3) Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa	Gehienez 10 puntu
a.4) Berrikuntzak	Gehienez 10 puntu
b) Denboran luzatzen diren proiektuak eta/edo estrategikoak, denboran finkatzeko eta epe ertain-luzerako helburuak ezartzen dituzten lan-prozesuak sortzeko aukera dutenak hain zuzen.	Gehienez 15 puntu
c) Santurtziko Berdintasun Kontseilua, Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen Kontseilua edo antzeko eremuetan parte hartzea.	Gehienez 10 puntu
d) Gutxiengo nazional, etniko eta/edo kulturaletako emakumeak integratzea eta gizonekin lan egitea sustatzen duten proiektuak.	Gehienez 15 puntu
e) Parte hartuko duten emakumeen kopurua.	Gehienez 15 puntu
f) Euskararen erabilera jardueran.	Gehienez 5 puntu

Ikerketa-proiektuen kasuan, honako balorazio-irizpide hauek erabiliko dira:

Irizpidea	Puntuazioa (gehienez 100 puntu)
a) Kalitate teknikoa	Gehienez 20 puntu
b) Proiektuak Santurtziko udalerriaren testuingurua hartu duen ardatz.	Gehienez 20 puntu

c) Proiektuan udalerrian bertan gauzatzea.	Gehienez 20 puntu
d) Ikuspegi feminista modu transbertsalean integratzea.	Gehienez 20 puntu
e) Santurtziko emakumeen memoria berreskuratu eta horren erreparazioa sustatzea.	Gehienez 20 puntu

9. artikulua- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Dirulaguntzen ezaugarriak zein diren jakinda, aldez aurretik ordainketa zenbait egin ahal izango dira, dirulaguntza justifikatu aurretik emandako funtsa izango direlarik.

Arestian adierazi bezala, aldez aurretiko ordainketak egitea dirulaguntza justifikatu aurretik funtsak ematea izango da, dirulaguntzari atxikitako jarduketak gauzatzeko egin beharreko finantzazio gisa. Ildo horretan, emandako dirulaguntzaren % 80 aldez aurretik ordaindu ahal izango da, eta gainerako % 20 dirulaguntzaren justifikazioa egin ondoren jasoko da.

Emandako dirulaguntza bankuko transferentziaren bitartez ordainduko da.

Dirulaguntza ezin izango da ordaindu herritarrek edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzulketa-ebazpen baten bidez zorduna bada.

10. artikulua- AURREKONTU-ZUZKIDURA

Dirulaguntzen deialdi honetarako 10.000 euroko aurrekontua egongo da gehienez esleitura, eta horiek finantzatzeko Udal Aurrekontuaren 600-23010-480.05.00 kontu-saila erabiliko da.

11. artikulua- DIRULAGUNTZAREN ERAKUNDE EDO TALDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek dituzte:

- Helburuak betetzea, eta dirulaguntza ematea justifikatzen duen proiektua eta/edo jarduera gauzatzea.
- Emakume eta Berdintasun Zerbitzuaren aurrean baldintzak betetzen direla eta diruz lagundutako proiektua eta/edo jarduera oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera egin dela justifikatzea.

Emakume eta Berdintasun Zerbitzuak egin ditzakeen egiaztapen-jardueren men egitea eta haiekin lankidetzan aritzea.

- c) Emakume eta Berdintasun Zerbitzuari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso duen.
- d) Diruz lagundutako proiektuan eta/edo jardueran egiten den edozein aldaketaren berri ematea, bai eta gauzatu beharreko jardueren xedea edo izaera funtsean aldatzen duen edozein gorabeheraren berri ematea ere.
- e) Diruz lagundutako proiektuan eta/edo jardueran egiten den edozein bide erabiliz egiten diren dokumentu, informazio-euskarri eta komunikazio guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira.
- f) Santurtziko Udalaren finantzazioa jasotzen dela agertzea, zabalkunde edo publizitate xede diren diruz lagundutako jardueretan indarrean dagoen logotipoa txertatuz.
- g) Erakunde edo talde onuradunek Legegintzako 2023/1 Dekretuan, martxoaren 16koan, zeinaren bidez Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen horretan ezarritako printzipio orokorrak bete beharko dituzte beren jardueretan.
- h) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez-sexista erabili beharko da, emakumeekiko bereizkeria eragiten duten irudiak edo estereotipo sexistak saihestu beharko dira eta berdintasunaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta abarren balioak dituen irudia sustatu beharko da. Era berean, ordenantza honen esparruan sortutako oroitza txostenetan eta beste edozein dokumentu edo bestelako txostenetan herritarrei buruzko datuak sexuaren arabera bereizita jaso beharko dira.
- i) Erakunde onuradunak ekintza gauzatzen denean aldaketaren bat egitea beharrezkotzat jotzen badu hasieran aurkeztutako programan aurreikusitakoari dagokionez, erakunde edo talde horrek Santurtziko Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloaren berariazko baimena izan beharko du aldaketa horiek egin aurretik. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, dirulaguntza ematea eragin zuen ebazpena aldatu edo ezeztatu ahal izango da.

12. artikulua- ERANTZUKIZUN ZIBILA

Erakunde onuraduna hartuko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta, beraz, erantzule zibil bakarra izango da jarduera horren garapen normaletik edo ez normaletik erator daitekeen edozein ondare-erreklamazioren

aurrean. Nolanahi ere, Udala salbuetsita geratuko da balizko erreklamazio horietatik.

13. artikulua- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

1.- Erakunde onuradunek derrigor aurkeztu behar dute emandako zenbatekoa zertan gastatu delako justifikazioa.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa oso-osorik erabiliko da dirulaguntza eman zen eskabidean jasotako xedea ordaintzeko.

Dirulaguntzaren justifikazioa Udalak emandako berariazko ereduak erabiliz aurkeztu beharko da nahitaez. Eredu horiek Udalaren webgunean egongo dira eskuragarri.

Erakunde onuradunek Santurtziko Udalak emandako zenbatekoa justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1.- Egindako proiektuaren azalpen-txostena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Azalpen-txostenean honako hauek erantsiko dira:

- a) Dirulaguntzaren xede den jardueran egindako azterlan, programa, argitalpen, iragarpen-kartel eta dokumentazio grafiko eta idatzi guztien aleak.
- b) Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, genero-ikuspegia txertatzeari buruzko azalpena eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta parekidetasun eza desagerrarazteko neurriak. Sexuaren arabera bereizitako herritarrei buruzko datuak jaso beharko dira.

2.- Jardueren kostua justifikatzen duen azalpen-txosten ekonomikoa, honako informazio hau izango duena:

- a) Diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egindako gastuen zerrenda, kontzeptua zehaztuta eta egiaztagiaren identifikazioa (faktura-zenbakia, nomina edo bestelakoak), hartzailea/hornitzailea, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data, dagozkion dokumentuen kopia erantsita.
- b) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuta, diruz lagundutako jarduerak egiteko lortutako bazkideen kuoten ekarpenak barne.
- c) Honakoak adieraziko dira: zenbatekoa, zein erakundetatik datorren diru-sarrera, administrazio publikoetatik eta erakunde pribatu edo publikoetatik datozen dirulaguntzak eta bestelako diru-sarrerak, dagozkien agiriak erantsita.

d) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa kitatzeko erabili ez diren kopuruen itzulketak.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituen:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburua edo xedea betetzearen ondorioz sortu zirela eta Santurtziko Udalaren ekarpenaren bidez finantzatu direla dioen adierazpena.
- Herritar edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak zeharka eragindako gastuen aitorpena.
- Herritar edo erakunde onuradunaren adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantziatu duten bestelako dirulaguntza edo diru-sarrera. Bertan adieraziko da horien zenbatekoa eta jatorria edo, hala badagokio, aitorpena egingo da, adieraziz ez duela proiekturako beste dirulaguntzarik ez eskatu, eta ez jaso.

2.- Aurrekoa gorabehera, erakunde onuradunek nahitaez aurkeztu behar dute Santurtziko Udalak dirulaguntza xede egokietarako erabili dela egiaztatzearen eskatzen dion dokumentazio osagarri guztia.

3.- Proiektuaren justifikazioa hurrengo urtearen urtarrilaren 31 baino lehen, bera barne, aurkeztu beharko da, epea luzatu ezean. Udalak, erakunde onuradunak aurretiaz idatziz eskatuta, egikaritze- eta justifikazio-epeak luzatu ahal izango ditu proiektuaren konplexutasuna edo interes orokorreko arrazoiak tarteko. Justifikazio-epea luzatzeko eskabide horiek abenduaren 31n aurkeztu ahal izango dira beranduenez.

Edonola ere, baimendutako gehieneko epea martxoaren 31ra arte izango da, baina justifikazioa gehienez 15 egun naturaletan egingo da aipatutako egunetik zenbatzen hasita.

Justifikaziorako ezarritako epea igaro eta administrazio-organo eskudunaren aurrean justifikaziorik aurkeztu ezean, organo horrek erakunde edo talde onuradunari eskatuko dio 15 eguneko epe luzaezinean aurkezteko. Justifikazioa paragrafo honetan ezarritako epean aurkeztu ezean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako itzulketa eta gainerako erantzukizunak eskatuko dira.

14. artikulua- ARAUA URRATZEA ETA ITZULTZEKO BETEBEHARRA

1.- Dirulaguntzen erakunde onuradunek betetzen ez badituzte oinarri hauetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzak, edo dirulaguntzak justifikatzen ez badituzte, osorik edo zati batean, dagokion itzulketa-prozedura izapidetu egingo da, eta erakunde

onuradunak behartuta egongo dira jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzultzera, dagozkien berandutze-interes eta guzti, egin litezkeen gainerako ekintzei ezertan eragotzi gabe.

2. Honako kasu hauetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak eta berandutze interesa, noiztik-eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa neurri zuzena dela erabaki arte, edo zordunak itzulketa ingresatzen duen egunetik baldin eta hori baino lehenagokoa bada:

- a) Dirulaguntza jasotzen baldin bada horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatuz.
- b) Helburua, jarduera edo proiektua guztiz edo zati batean betetzen ez bada edo dirulaguntza jasotzeko oinarri izan diren jokabideak hartzen ez badira.
- d) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar beste justifikatzen ez bada.
- c) Ezarritako hedapen-neurriak hartzeko betebeharra betetzen ez bada.
- d) Finantza-egiaztapen eta kontrolerako jarduketei aurka egiten bazaie, aitzakiak edo oztopoak jartzen badira edo uko egiten bazaio, eta kontabilitate-, erregistro- edo kontserbazio-betebeharrak betetzen ez badira, betiere horren ondorioz ezinezkoa bada jasotako funtsei emandako erabilera egiaztatzea, helburua betetzea edo helburu bererako dirulaguntzak, bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak pilatzea.
- e) Dirulaguntza ematerakoan erakunde onuradunek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez badituzte
- f) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan.

3.- Oro har, dirulaguntzak itzultzeko prozedura Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 2003/38 Lege Orokorraren 36. artikulutik 43rera bitartean ezarritakoari jarraituz egingo da.

4.- Itzuli beharreko zenbateko oso edo zati bat zehazteko, proportzionaltasun- eta ekitate-printzipioak hartuko dira kontuan, kasu zehatz bakoitzaren arabera.

15. artikulua- DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Santurtziko Udalak deialdi honen bitartez ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek ematen dituzten beste batzuekin. Hala ere, modu isolatuan edo beste dirulaguntza edo ekarpen batzuekin batera lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da izan diruz lagundutako programaren kostu osoa baino handiagoa, eta halakorik gertatuko balitz, aldea itzuli egin beharko litzateke.

DECRETO DE ALCALDÍA

APROBACIÓN DE LA CONVOCATORIA Y BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES PARA LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES DE MUJERES Y HOMBRES EN EL MUNICIPIO DE SANTURTZI CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2026.

Mediante el Decreto de la Alcaldía núm. 1656 de 11 de junio de 2025, se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones (PES) del Ayuntamiento de Santurtzi para el periodo 2025-2027 en cumplimiento de lo establecido en el art. 8 de Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. En el art. 9 del citado Plan, entre otras líneas estratégicas de actuación, se contempla la *"Promoción de programas de empoderamiento y participación social de las mujeres en el municipio de Santurtzi"* habiéndose previsto un presupuesto anual de 10.000,00 € para destinar a este tipo de subvenciones en los ejercicios 2025, 2026 y 2027.

El artículo 25.2.o) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, atribuye a los municipios competencias en materia de *"Actuaciones en la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres así como contra la violencia de género"*.

El artículo 17.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi establece como competencia propia de los municipios *"27) Ordenación y gestión de las políticas de igualdad de género y fomento de la equidad"*.

El Ayuntamiento de Santurtzi, a través del Área de Acción Social e Igualdad y su Servicio de Igualdad, tiene como objetivo, entre otros, llevar a cabo cuantas actuaciones y proyectos sea posible ejecutar para promover la integración y participación social. Así como el empoderamiento y la mejora de la calidad de vida y el bienestar de las personas del municipio y en particular el fortalecimiento de la participación social de las mujeres y la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres.

Así mismo, este objetivo queda enmarcado en la competencia municipal establecida en el art. 33, apartado 1.5 y la correspondiente ficha 1.5 del anexo I, del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, sobre el Servicio de promoción de la participación y la inclusión social en el ámbito de los servicios sociales.

El art.7.1. k) del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (BOPV núm. 60, de 27 de marzo de 2023) establece que será función de la administración local de Euskadi el *"establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o funciones contribuyan en el ámbito local a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres"*.

Por su parte, el VI. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Santurtzi 2022-2027 aprobado por el Pleno Municipal en febrero de 2022 tiene entre sus ejes de trabajo uno referido al empoderamiento feminista.

Para el logro de dicho empoderamiento se establece una amplia relación de acciones entre las que se encuentra la número 6.2 que recoge apoyar al movimiento asociativo de Santurtzi en el desarrollo de actividades para la igualdad y en la integración de la perspectiva de género en sus entidades.

